TOLOSAKO UDALA

| TOLOSAKO UDALEKO BERDINTASUN SAILAREN 2023. URTEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA | CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DEL AÑO 2023 DEL DEPARTAMENTO DE IGUALDAD DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA. |
|---|---|
| 1. Xedea<br>2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa<br>3. Eskaerak<br>4. Instrukzioa eta proposamena<br>5. Hautapen eta balorazio irizpideak<br>6. Ebazteko eta jakinarazteko epea<br>7. Dirulaguntzaren erabilera justifikatzea<br>8. Dirulaguntzaren zenbatekoa.<br>9. Dirulaguntzen abonua eta aurrerakinak<br>10. Zuzkidura eta aurrekontuko partida.<br>11. Publizitatea<br>12. Diruz laguntzeko gastuak<br>13. Araudia<br>14. Errekurtsoak | 1. Objeto<br>2. Plan Estratégico de Subvenciones<br>3.Solicitudes<br>4. Instrucción y propuesta<br>5. Criterios de selección y valoración<br>6. Plazo de resolución y notificación<br>7. Justificación del destino de la subvención<br>8. Cuantía de la subvención<br>9. Abono y pagos anticipados<br>10. Dotación y partida presupuestaria<br>11. Publicidad<br>12. Gastos subvencionables<br>13. Normativa<br>14. Recursos |
| 1. Xedea<br><br>Deialdi honen xedea da Tolosako udalerrian emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarteek, erakundeek edo pertsona fisikoek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek norgehiagoka araubidez emateko prozedura arautzea.<br><br>Dirulaguntzak 2023. urtean zehar hainbat proiektu eta jarduera egiteko izango dira, eta duten proiekzio eta interesagatik bat etorriko dira udaleko Berdintasun Sailaren programen helburuekin, hau da berdintasuna bultzatzea Tolosako | 1. Objeto<br><br>El objeto de la convocatoria es regular la concesión de subvenciones por el procedimiento de concurrencia competitiva a asociaciones sin ánimo de lucro y a personas físicas que promueven la igualdad de mujeres y hombres en el municipio de Tolosa.<br><br>Las subvenciones se destinarán a realizar proyectos y actividades a lo largo del año 2023, que por su proyección e interés estén de acuerdo con los objetivos de los programas del Departamento de Igualdad, esto es, promover la igualdad en la vida |

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus
www.tolosa.eus

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| politikaren, ekonomiaren eta gizartearen esparru guztietan, eta informazio, sentsibilizazio eta kontzientzia soziala areagotzea balioetan eta jarreretan hezteko ekintzak bultzatzea, alegia, gizarte-ereduen eraldaketa bultzatzea.<br><br>Erakundearen eraketa-eskrituran edo estatutuetan jasotako helburuetako bat izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egitea.<br><br>2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa<br><br>Dirulaguntza lerro hau 2023-2025 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatua dago, Udalbatzak, 2022ko abenduaren 15ean eginiko Osoko Bilkuran onartua, eta GAOn 2023ko otsailaren 1ean argitaratua (21 zk.).<br><br>Dirulaguntzen Plan Estrategiko horretan zehazten dira zein helburu eta ondorio iritsi nahi diren dirulaguntza hau aplikatuta, zein diren horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta bere finantzaketa-iturriak, baina, betiere, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzeko baldintzarekin.<br><br>3. Eskaerak<br><br>Dirulaguntza hauek eskatu ahal izango dituzte beren jardueraren zati nagusia Tolosan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakunde guztiek eta pertsona fisikoek, beti ere emakumeen eta gizonen arteko berdintasun alorrean lan egiten badute. | política, en la economía y en todos los espacios de la sociedad de Tolosa; y apoyar acciones de información, sensibilización, concienciación social y reeducación en valores y actitudes, y, en definitiva, promover la transformación de los modelos sociales.<br><br>El trabajo a favor de la igualdad de mujeres y hombres será uno de los objetivos recogidos en la escritura fundacional o en los estatutos de la entidad.<br><br>2. Plan Estratégico de Subvenciones<br><br>Esta línea de subvenciones está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa 2023-2025, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 15 de diciembre de 2022 y publicado en el BOG nº 21 de 1 de febrero de 2023.<br><br>En dicho Plan Estratégico de Subvenciones se detallan los objetivos y conclusiones que se pretenden alcanzar con la aplicación de esta subvención, el plazo para su consecución, los costes previstos y sus fuentes de financiación, siempre condicionados al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.<br><br>3. Solicitudes<br><br>Podrán solicitar las citadas subvenciones las asociaciones o entidades sin ánimo de lucro, o personas físicas, que desarrollen una parte importante de su actividad en Tolosa o que la misma sea considerada de interés para el municipio, siempre que trabajen en el ámbito de la igualdad entre mujeres y hombres. |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| Dirulaguntzen onuradun izateko, elkarte eta fundazioek legez eratuta eta dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon behar dute. | Para percibir la subvención las asociaciones o entidades deberán estar legalmente constituidas e inscritas en los registros correspondientes. |
| Inprimakiak osorik (www.tolosa.eus) eta ongi beteta UDATEn aurkeztu beharko dira 20 egun naturaleko epean, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita: | Los impresos debidamente cumplimentados (www.tolosa.eus) en su totalidad deberán presentarse en UDATE en el plazo de 20 días naturales a partir del día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. |
| Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira nahitaez, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan ere, eta aurrez aurreko erregistroa pertsona fisikoentzat bakarrik onartuko da. | En el caso de entidades o personas jurídicas deberán presentarse necesariamente en el registro electrónico del Ayuntamiento de Tolosa, así como en los restantes registros electrónicos señalados en el artículo 2.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, admitiéndose el registro presencial exclusivamente para las personas físicas. |
| Hauez gainera, pertsona fisikoak beste modu hauetan ere aurkeztu ahal izango dira:<br><br>a) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.<br>b) Espainiaren ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan, bulego kontsularretan edo Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan.<br>c) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.<br>d) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan. | Además, las personas físicas podrán presentar solicitudes de las siguientes maneras:<br><br>a) En las oficinas de correos, en los términos que reglamentariamente se establecen.<br>b) En las representaciones diplomáticas u oficinas consulares de España, oficinas consulares o delegaciones diplomáticas de España en el extranjero.<br>c) En las oficinas de asistencia en materia de registro.<br>d) En cualquier otro lugar que establezcan las disposiciones |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| Eskaerek Berdintasun Departamentuaren Oinarri Berezietan ezarritako betebeharrak beteko dituzte.<br><br>Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla. | vigentes.<br><br>Las solicitudes deberán cumplir los requisitos establecidos en las Bases Específicas de Igualdad.<br><br>La presentación de solicitudes supone la aceptación íntegra expresa de todas las condiciones contempladas en esta convocatoria. |
| 4. Instrukzioa eta proposamena | 4. Instrucción y propuesta |
| Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 19. eta 20. artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da instrukzioa eta proposamena. | La instrucción y propuesta se efectuará conforme a lo dispuesto en los artículos 19 y 20 de la Ordenanza General reguladora para el otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa. |
| Organo eskudunak: | Órganos competentes: |
| —Instrukzioa: Berdintasun teknikaria.<br>—Balioespen Batzordea.<br>—Ebazpena: Alkatetza. | — Instructora: Técnica de Igualdad.<br>— Comisión de Valoración<br>— Resolución: Alcaldía. |
| Herritarren arloko informazio-batzordeari dagokio eskabideak baloratzea, saileko arduradunak emandako txostenean oinarrituta. Balorazio eta ebazpen-proposamena organo eskudunari aurkeztuko zaizkio, honek onar ditzan. | Corresponderá a la comisión informativa del área de Ciudadanía la valoración de solicitudes, que se basará en el informe emitido por la persona responsable del departamento. Dicha valoración y propuesta de concesión se someterá al órgano competente para su aprobación. |
| 5. Hautapen eta balorazio irizpideak | 5. Criterios de selección y valoración |
| Egitasmoen puntuazioa eta laguntzaren kopurua kalkulatzeko erabiliko diren irizpideak hemen daude jasota: Tolosako Udaleko Berdintasun departamentuaren dirulaguntzak ematea arautzeko Udal Ordenantza, 5. puntua. | Los criterios para determinar la puntuación de las propuestas y la cuantía de las subvenciones serán los establecidos en el punto *Quinto* de la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.<br><br>Estos criterios están en conformidad con |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| Irizpide horiek bat datoz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 21bis artikuluarekin, diru-laguntzei buruzkoarekin.<br><br>6. Ebazteko eta jakinarazteko epea<br><br>Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, urriaren 1eko 39/2015 legearen 82. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da; dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango.<br><br>Eskariak ebazteko eta jakinarazteko gehienez 6 hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta orduko berariazko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi egin direla ulertuko da.<br><br>Ebazpenak Administrazio bidea amaituko du.<br><br>Interesatuei erabakiaren berri emango zaie, urriaren 1eko 39/2015 legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.<br><br>Emandako dirulaguntzen argitalpena egingo du Udalak, 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.<br><br>7. Dirulaguntzaren erabilera justifikatzea | la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, artículo 21bis, relativo a subvenciones.<br><br>6. Plazo de resolución y notificación<br><br>Instruido el procedimiento, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de Resolución, se evacuará el trámite de audiencia previsto en el artículo 82 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, salvo que no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas.<br><br>El plazo máximo para la resolución y notificación de las solicitudes será de 6 meses contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo de presentación de solicitudes, considerándose desestimadas si no recayera resolución expresa a dicha fecha.<br><br>La resolución dará por terminada la vía administrativa.<br><br>La resolución se notificará a las personas interesadas de acuerdo con lo previsto en al artículo 41 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.<br><br>El Ayuntamiento procederá a la publicación de las subvenciones concedidas, de acuerdo con lo establecido en el artículo 18 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.<br><br>7. Justificación del destino de la subvención<br><br>La justificación de la utilización de la |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean eta Berdintasun Departamentuaren Ordenantzan ezarritakoari jarraiki egingo da, eta 2024ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.<br><br>Gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua izeneko modalitatea erabiliko da.<br><br>Justifikazio-kontuak, gutxienez, jarraian zehazten den informazioa jasoko du:<br><br>1. Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko.<br><br>2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta hauek barne hartuko dituena:<br><br>a) Jarduераren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituena. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.<br><br>b) Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuen fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak. Agiri horiei erantsiko zaizkie egindako ordainketen egiaztagiriak.<br><br>c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu | subvención se realizará conforme a lo establecido en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Tolosa y en la Ordenanza del Departamento de Igualdad y deberá presentarse antes del 31 de enero del 2024.<br><br>Se utilizará la modalidad de Cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto.<br><br>La cuenta justificativa contendrá al menos la siguiente información:<br><br>1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos .<br><br>2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:<br><br>a) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas.<br><br>b) Facturas de gastos de la relación a que se refiere el párrafo anterior y demás documentos de valor para el tráfico jurídico mercantil o de eficacia administrativa. A dicha documentación se adjuntarán los justificantes de los pagos realizados.<br><br>c) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan |

| | |
|---|---|
| duten beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazten dituena. | financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia. |
| 8. Dirulaguntzaren zenbatekoa | 8. Cuantía de la subvención |
| Dirulaguntza hauen banaketa norgehiagoka bidez egingo da. | El reparto de estas subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva. |
| Eskatu daitekeen gehienezko kopurua 2.000€-koa da. | La cantidad máxima que se puede solicitar es de 2.000€. |
| 9. Dirulaguntzen abonua eta aurrerakinak | 9. Abono y pagos anticipados |
| Dirulaguntzen abonua Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da. | El abono de las subvenciones se realizará conforme a lo establecido en las Ordenanzas Generales del Ayuntamiento de Tolosa. |
| %75eko ordainketa aurreratuak egin ahalko dira, interesatuak hala nahiko balu, justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa. Nolanahi ere, gelditukoden %25aren abonua egindako gastuaren justifikaziora baldintzatuta geratuko da. | Se podrán realizar pagos anticipados de hasta el 75% de la subvención, si la persona interesada lo solicita, que supondrán entregas de fondos con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención. En cualquier caso, el abono del 25% restante quedará sujeto a la justificación del gasto realizado. |
| Justifikazioaren garaian, aurreratutako kopurua gehiegizkoa izan dela ondorioztatzen bada, kopuruaren zati bat edo osoa itzuli beharko dute, dagokion berandutze-interesekin. | Si en la justificación se deduce que el importe anticipado ha sido excesivo, se deberá devolver el total o una parte del mismo, con los correspondientes intereses de demora. |
| 10. Zuzkidura eta aurrekontuko partida<br>Dirulaguntzak ondorengo ataletan | 10. Dotación y partida presupuestaria<br>Las subvenciones se podrán solicitar en |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| oinarrituta eskatu ahal izango dira. Atal horietako bakoitzak gehienezko kopuru hauek izango ditu:<br><br>— Partida: 1400.481.01.23160 - 2023<br><br>— Berdintasunerako jardueretarako diru-laguntzak: 8.000,00 €. | base a los siguientes apartados, a los que se destinarán las siguientes cuantías máximas:<br><br>— Partida: 1400.481.01.23160 - 2023<br><br>— Subvenciones para actividades de Igualdad: 8.000,00 €. |
| 11. Publizitatea<br><br>Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu euskarari lehentasuna emanda diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.<br><br>Esaldi hau txertatu beharko da: “Tolosako Udalak diruz lagundutako jarduera”. Eta Tolosako logoa azaldu beharko da euskarri guztietan: https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/tolosa-logotipoa-bertikala_3.pdf | 11. Publicidad<br><br>La entidad beneficiaria deberá redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales, con preferencia al euskera, los escritos, anuncios, notas y demás comunicaciones que publique en la actividad subvencionada, así como la publicidad, tanto oral como escrita. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskera o en las dos lenguas oficiales. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse en el momento de la justificación de la realización de la actividad subvencionada.<br><br>Se deberá incluir el siguiente texto: “Actividad subvencionada por el Ayuntamiento de Tolosa”. Además, deberá aparecer el logo de Tolosa en todos los soportes: https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/tolosa-logotipoa-bertikala_3.pdf |
| 12. Diruz laguntzeko gastuak<br><br>Jarduerekin zerikusi zuzena duten gastuak lagunduko dira.<br>Finantza gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko adituen gastuak, eta | 12. Gastos subvencionables<br><br>Se subvencionarán los gastos que guarden relación directa con la actividad.<br><br>Los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración específicos son |

| | |
|---|---|
| administrazioko espezifikoak diruz laguntzekoak dira, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera hori modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira. | subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la misma. |
| Diruz laguntzeko modukoak izango dira, hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren zeharkako kostuak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera arrazoiz dagokion zatian, eta, nolanahi ere, kostu horiek jarduera benetan egiten den aldiari dagozkion neurrian. | Serán subvencionables, en su caso, los costes indirectos de la actividad subvencionada, en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con los principios y normas de contabilidad aceptados con carácter general, y en todo caso, en la medida en que dichos costes correspondan al periodo en que efectivamente se desarrolle la actividad. |
| Zeharkako kostutzat hartuko dira programa edo jarduera batekin zuzenean lotu ezin direnak, baina diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezkoak direla modu justifikatuan aurkezten direnak. | Se considerarán costes indirectos aquellos que no puedan asociarse directamente a un programa o actividad, pero que se presenten justificadamente como necesarios para la realización de la actividad subvencionada. |
| 13. Araudia | 13. Normativa |
| Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: | En todo lo no previsto en la presente convocatoria se aplicarán las siguientes normativas: |
| —Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); horren garapeneko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*). | —La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado de 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (Boletín Oficial del Estado de 25 de julio). |
| —Tolosako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udal honen Osoko Bilkurak 2017ko apirilaren 25ean onartu zuen eta 2017ko uztailaren 7ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN | —La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa fue aprobada por el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el 25 de abril de 2017 y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 7 de |

| | |
|---|---|
| argitaratu zen (130 zk.); ondoren, Udalbatzak 2023ko urtarrilaren 26an egindako Osoko Bilkuran ordenantza orokorraren aldaketa hasieraz onartu zuen, eta otsailaren 2an GAOn argitaratu zen (22 zk). 30 eguneko epea pasa ostean inongo alegaziorik gabe, Udalbatzak 2023ko martxoaren 30ean behin betikoz onartu zuen, eta apirilaren 11n GAOn argitaratu zen (68 zk.). | julio de 2017 (nº 130); posteriormente, el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 26 de enero de 2023 aprobó inicialmente la modificación de la Ordenanza General, publicada en el BOG el 2 de febrero (nº 22). Transcurrido el plazo de 30 días sin alegaciones, fue aprobada definitivamente en Pleno el 30 de marzo de 2023 y publicada en el BOG el 11 de abril (nº 68). |
| —Tolosako udaleko Berdintasun departamentuaren dirulaguntzak ematea arautzeko udal Ordenantza onespena eman zitzaion Udalbatzak 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, eta 2017ko uztailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (131 zk.); ondoren, hasiera batean onetsi zen 2023ko otsailaren 28ko 2023/449 Alkatetza Dekretuaren bidez, 2023ko martxoaren 8an argitaratua (GAO, 46 zk.), berariazko ordenantza hau aldatzea; Ordenantza Orokorraren aldaketekin bat etor zedin. 30 eguneko epea pasa ostean inongo alegaziorik gabe, behin betikoz onartutzat eman zen. | —La Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa fue aprobada por el Pleno de la Corporación en sesión celebrada el 25 de abril de 2017, y publicada el 10 de julio de 2017 en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa nº 131; posteriormente, se aprobó inicialmente la modificación de esta Ordenanza específica por Decreto de Alcaldía 2023/449 del 28 de febrero de 2023, publicado el 8 marzo de 2023 (BOG nº 46), para su adecuación a las modificaciones de la Ordenanza General. Transcurrido el plazo de 30 días sin alegaciones, quedó aprobada definitivamente. |
| 14. Errekurtsoak | 14. Recursos |
| Deialdi honen aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. | Las personas interesadas podran interponer directamente contra la presente convocatoria recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Donostia, en el plazo de dos meses a partir del dia siguiente al de su publicacion. |
| Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Tolosako Udaleko Alkateari, | No obstante, con caracter previo, podran interponer recurso potestativo de reposicion ante Alcaldía del Ayuntamiento |

| | |
|---|---|
| argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean. | de Tolosa, en el plazo de un mes a partir del dia siguiente al de su publicacion. |
| Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, berraztertzeko errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo ezetsi arte. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke. | En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposicion o se haya producido su desestimacion presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposicion de cualquier otro recurso que se estime pertinente. |

Berdintasun saileko teknikaria

MARIA MERCEDES FERNANDEZ BOGA - 15931046G

Firmado digitalmente por MARIA MERCEDES FERNANDEZ BOGA - 15931046G
Fecha: 2023.05.12 11:16:18 +02'00'